

Zozketa % 100 digitala promozioaren oinarriak

2019ko uztailaren 18an eguneratutako oinarriak

1.- Erakunde antolatzailea

BANCO BILBAO VIZCAYA ARGENTARIA, S.A. (aurrerantzean, "BBVA" edo "Bankua"). IFK: A48265169. Egoitza soziala: San Nikolas plaza 4, Bilbo (Espainia).

2.- Promozioaren helburua

Bezeroen artean kanal digitalen erabilera sustatzeko asmoz, BBVAk zozketa egingo du mugikorraren bidez BBVAren webgunearen edo aplikazioaren eremu pribatuan sartzen diren bezeroen artean. Hogeita hamar mila euro banatuko ditu sarietan 2019ko uztail, abuztu eta iraileko hilabeteetan.

3.- Parte-hartzaileak. Zozketan parte hartzeko baldintzak

BBVAk jakinarazpena bidaliko die zozketan parte hartzeko hautatuak diren bezeroei, mugikorretik BBVAren webguneko edo aplikazioko eremu pribatura sartzen direnean.

4.- Iraupena

Promozioan, 2019ko uztailaren 1etik irailaren 30era bitartean 3. puntuko baldintzak betetzen dituzten bezeroak sartuko dira.

5.- Lurralde eremua

BBVAren Espainiako bezeroentzat da promozioa.

6.- Saria

Promozioan, hiru zozketa egingo dira hilean, hamar mila eurokoak. Zozketa bakoitzean, hirurehun euroko hamar sari, berrehun euroko hogeitaz sari eta ehun euroko hogeita hamar sari emango dira. Guztira, hogeita hamar mila euro zozketatuko dira.

7.- Zozketak

Hilero, BBVAk fitxategi informatiko bat prestatuko du, non zozketan parte hartzeko baldintzak betetzen dituzten bezero guztiak jasoko baitira, korrelatiboki zenbakituak; hala, fitxategian dagoen bezero bakoitzari partaidetza bat esleituko zaio.

<http://www.alazar.info> online tresnarekin ("Tresna") egingo dira zozketak 2019ko abuztuaren 6an, irailaren 6an eta urriaren 7an.

Abuztuaren 6ko zozketan, 3. puntuko baldintzak betetzen dituzten eta uztailean gutxienez behin mugikorraren bidez BBVA aplikazioko edo webguneko eremu pribatuan sartu diren pertsonak sartuko dira.

Irailaren 6ko zozketan, 3. puntuko baldintzak betetzen dituzten eta abuztuaren gutxienez behin mugikorraren bidez BBVA aplikazioko edo webguneko eremu pribatuan sartu diren pertsonak sartuko dira.

Urriaren 7ko zozketan, 3. puntuko baldintzak betetzen dituzten eta irailean gutxienez behin mugikorraren bidez BBVA aplikazioko edo webguneko eremu pribatuan sartu diren pertsonak sartuko dira.

BBVAk beretzat gordeko du zozketen prozedura aldatzeko eskubidea; hala, beste prozedura bat ezarri ahal izango du, baldin eta erabat inpartziala bada. Prozedura aldatuz gero, parte-hartzaileei jakinaraziko die.

8.- Sariak

Zozketa bakoitzean, Tresnak hirurogei emaitza sortuko ditu, eta saria irabazi duten hirurogeiak izango dira: lehenengo hamarrek hirurehuna euro jasoko dituzte; hurrengo hogeiek, berrehuna euro; eta azken hogeita hamarrek, ehuna euro.

Zozketa egingo den egunean garaile suertatzen direnek kontu bat izan behar dute BBVA-n. Baldintza hori bete ezean, saria eman gabe utziko da.

BBVAren nahiaren kontrako arrazoiengatik ezin izango balira egin zozketak ezarritako epean, bertan behera utziko dira, eta hurrengo lanegunean egingo (larunbatetan izan ezik), zozketa egitea eragotzi duen arazoa konpondu ondoren.

9.- Saria jakinaraztea eta entregatzea

Zozketa bat egin den bakoitzean, jakinarazpena bidaliko zaie irabazle atera diren bezeroei, posta elektronikoz, posta arruntez edo telefono bidez.

Bankuak zozketa egin ondorengo 30 egunetan ordainduko ditu sariak irabazleek BBVA-n duten kontuan.

10.- Iruzurra

BBVAk edo Zozketei modu profesionalean lotuta dagoen edozein erakundek irregulartasunik ikusiko balu, edo partaide batek Zozketaren prozesua oztopatzen duela susmatzen badu, partaide horren izen-ematea ezaba dezake, besterik gabe. Oztopo izan daiteke, esaterako, erregistroa modu ilegalean aldatzea, edozein partaidetza moduren bidez parte hartzearen gorabehera (teknikoa edo informatikoa), horren bidez emaitza edo partaidetza mekanika faltsutzeko. Horren barne egongo dira prozesu informatiko automatizatuak edo bestelako prozesuak erabiltzea, BBVA ingurunean pertsona fisikoek operazioak eskuz egitea ez badakarte. Xede horietarako, BBVAk beharrezko euskarri teknologikoak prestatu ditu, legez kontra saria lortu nahi duen eta parte-hartzea hondatu nahi duen iruzurrezkoa, anormala edo mingarria den jokaera posible bat detektatzeko. Hortaz, BBVAk beretzat gordetzen du edozein partaide erregistrotik ezabatzeko eskubidea, erakutsi badu edo susmatzen bada deskribatutakoaren arabera arauz kanpoko jokaera bat duela.

11. - Fiskalitatea

Zozketa honen sariari hauek aplikatuko zaizkio: 35/2006 Legea, azaroaren 28koa, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzkoa, eta Sozietateen gaineko Zergaren, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren eta Ondarearen gaineko Zergaren legeen aldaketa partzialari buruzkoa; 26/2014 Legea, abenduaren 27koa, aurrekoa aldatzen duena; 439/2007 Errege Dekretua, erregelamendua eta haren ondorengo aldaketak onartzen dituena; 5/2004 Legegintzako Errege Dekretua, martxoaren 5koa, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Legearen testu bategina onartzen duena (abenduaren 27ko 26/2014 Legearen bitartez aldatua); 1776/2004 Errege Dekretua, uztailaren 30ekoa, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren araudia onartzen duena; azaroaren 27ko 27/2014 Legea, sozietateen gaineko zergarena; 1777/2004 Errege Dekretua, uztailaren 30ekoa, Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duena; 13/2011 Legea, Jokoa arautzen duena, bat datozen xedapenekin batera.

Aipatutako araudiarekin adostasunean, partaideei jakinarazten zaie, salmentara edo ondasun edo zerbitzuetara lotutako joko, lehiaketa, zozketa edota ausazko konbinazioetan parte hartzeagatik lortutako saria ondare-irabazitzat hartzen dela. Sariak hirurehun eurotik (300 €) beherakoak direnez, ez dira zertan kontuan sartu.

Saritua izango da sariak fiskalitatean dituen ondorio fiskalen arduraduna. Horrenbestez, BBVAk ez du inolako ardurarik izango. Hori medio, BBVAk irabazleari ziurtagiri bat helaraziko dio sariari dagozkion datuekin, behin urte naturala amaituta.

Saria erabiltzen duten pertsonak gorabehera, fiskalitatearen ikuspegitik, klausula honen edukia irabazleari aplikatuko zaio.

12.- Datu pertsonalen tratamendua

3/2018 Lege Organikoak, abenduaren 5ekoak, datu pertsonalak babestekoak eta eskubide digitalak bermatzekoak, eta 34/2002 Legeak, uztailaren 11koak, Informazio Gizartearen eta Merkataritza Elektronikoen Zerbitzuei buruzkoak, ezartzen dutena betez, parte-hartzaileak baimena ematen du parte-hartze hutsagatik eman dituen datuak eta parte hartu ahal izateko eman dituen gainerakoak BBVAren fitxategietan sartzeko, zozketa egin, kontrolatu eta kudeatu eta haren segimendua egin ahal izateko.

Tratamenduaren arduraduna BBVA da, egoitza soziala hemen izanda: Plaza San Nicolás número 4, 48005 Bilbao (Vizcaya). Erabiltzaileak edonoz erabili ahal izango ditu datu pertsonalak kontsultatzeko, zuzentzeko, baliogabetzeko eta aurkaratzeko dauzkan eskubideak (ahal denetan behintzat), derechosprotecciondedatos@bbva.com helbidera jakinarazpena bidalita, nortasun agiriaren kopia batekin batera, edo BBVA bulego edo BBVA Taldearen Bezeroentzako Arreta Zerbitzura jota. Posta-kutxa: 1598 - 28080 Madrid.



Zure datu pertsonalak araudiaren arabera tratatu ez ditugula iruditzen bazaizu, datu pertsonalak babesteko ordezkariarekin jar zaitezke harremanetan, dpogrupobbva@bbva.com helbidean. Nolanahi ere, Datuak Babesteko Espainiako Agentzian (www.agpd.es) erreklamazioa aurkezteko eskubidea duzu.

BBVAk Zozketetan parte hartzea eta bertan emandako datuak gordeko ditu, baita emandako beste edozein dokumentazio edo datuekin batera. Zozketen kudeaketa eta kontrol hobea izateko gordeko ditu, Zozketa amaitu eta sei hilabetez.

13.- Erantzukizuna

BBVA ez da erantzule izango Zozketen parte hartzean eragin dezakeen edozein egoeratan, hala nola, galerak, hondatzeak, lapurrekak, atzerapenak, telekomunikazio-sareen erabilgarritasun ezak, edo hirugarrenei egotzi daitezkeen beste edozein egoera. Zozketak burutu ezin badira iruzurra, errore teknikoak edo BBVAz kanpoko egoeraren bat dagoelako eta prozesuan eragina duelako, BBVAk eskubidea du Zozketak bertan behera uzteko, aldatzeko edo kentzeko.

BBVA ez da erantzule izango irabazleen datuak okerrak direnean edo BBVAz kanpoko arrazoi batengatik haiekin harremanetan jarri ezin denean.

14.- Oinarrien onarpena. Baldintzen kontsulta. Aldatzea.

Webgunean 3. puntuan adierazi bezala sartuz gero, osorik onartuko dira oinarri hauetako zehaztapen eta baldintzak. Zozketen partaideek BBVAk emandako gainerako argibideak jarraitu beharko dituzte.

Partaideak www.bbva.com webgunean kontsultatu ahal izango ditu oinarri hauek

BBVAk eskubidea du Zozketen baldintzak eta datak aldatzeko, behar den bezala jakinarazita.

15.- Erreklamazioa

Promozio honen erreklamazio aldia azken zozketa egin eta 45 egun natural igarotzean amaituko da.

16.- Legeria eta jurisdikzioa

Oinarri hauen termino eta baldintzak Espainiako legeriak arautuko ditu.

Madriren, 2019ko uztailaren 18an.